



DANI BLANCO

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA ♦

Lanik ez egiteko eskubidea

NIRE azken artikulua ostean, kalean, ezagun batek esan zidan bat-batean: “Hi, guztiei oinarrizko soldata hori jarritz gero, inork ez dik lanik egin nahiko”. Harrituta utzi ninduen, batez ere, orain arte ez nekielako ziur ea norbaitek irakurtzen zituen nire artikulua.

Bada, erantzun nion: “Lanik egin gabe jende asko bizi da. Aberatsak, erretiroa hartu edo gaixotasunak dituztenak, baina batez ere, lana egin nahi eta ezin duten langabetuak”.

Lanaz hitz egiten dugunean, beti soldatapeko lanaz ari gara bakarrik, baina izan badira, soldatarik gabeko lan eremu handiak: esaterako, emakumeek egin izan ohi duten etxeko lana, edo borondatez egiten dena, eta hurbilean daukagu, horren eredu, gure herrietan arrunt izan den auzolana.

Soldatapeko lanari dagokionez, okerreña da, lana egin nahi duen askok ezin duela egin (Gure Euskal Herritxoan 160.000 langabetu daukagu), eta gainera, etorkizunean ere, merkatu global horri, eta aurrerapen teknologikoei esker, ez da guztientzat lanik izango. Gutxi batzuek asko izango dute, eta beste askok, ia denek, oso gutxi, lana, diot.

Ezagun horrek gehiegi pentsatu gabe esan zidana, ordea, gure eskumako liberalek pentsatzen dutena da. Jeltzaleek, esaterako, eskubide honi buruz Espainiako parlamentuan hitz egin zenean, hauxe zioten: “Zuek, lanik ez egiteko eskubidea ezarri nahi duzue”.

Eskumakoek, argiak eurak, segituan ikusi zuten oinarrizko soldata ezartzearen ondorioa: soldatapeko lanaren presio orokorra, bizirauteko beharrenda presioa galdu egiten dela: lana merkatutik alderatuz, ez du euren gizarte kapitalistak funtzionatzen.

Alde batetik, gazteek, itota daudelako lanean hasi beharrean, formakuntzarako urte batzuk hartzeko aukera izango lukete, gustukoak zaizkien beste lan batzuk egiteko aukera, lan solidarioak edo lan sortzailea egitekoa, zaletasunak gartzetzekoa. Bestetik, enpresariak lan baldintza hobetoagoak, soldata handiagoak, jarri beharko lituzkete, jendea eurekin lanean aritzeko, propietateak edo ongizatea “gehitu” nahi dutenentzat.

Azkenik, langileek ez lukete ordu estrarik egin beharko, jubilatutak ez lirarteke ibiliko lan beltza egin beharrean, euren pentsioaz aparte zerbait gehiago

irabazte aldera, eta etxeko andreak ez lirarteke hain baldintza eskasetan geldituko senar langilea hilez gero.

Lana soldatapeko askatzea da, oinarrizko errenta duinarekin eskuratuko genukeen benetako lorpena. Lana merkantzia izatetik libratu. Soldatapeko lanik ez egiteko eskubidea izan, eta, aldiz, denontzat lan egiteko eskubidea ziurtatu.

Gauden garaian, merezi du saiatzeak, ez? ■

Lana soldatapeko askatzea da, oinarrizko errenta duinarekin eskuratuko genukeen benetako lorpena



DANI BLANCO

Amets Arzallus



BERTSOLARIA

Deszentralizatzen

DESZENTRALIZATZEN hasiko dela dio batek, eta besteak desintegratzen ari dela esan beharrik ez du. Ez dira konparagarriak, Piruli dorreak haize balantza handia du, Eiffelena ez da berehalakoan eroriko, lau zango ditu. Eta guk abiadura bi: Lurralde Elkargo berezi batez ari gara batean, eta independentziarako erreferenduma usaindu nahi dugu bestean. Krisiak mikro-espazioetara badarama mundua, agian ahots bat izan genezake. Ahots bat bai, baina hitzik, izanen ote dugu gure hitzik? Hautesien Kontseiluak eta Eusko Legebiltzarrak beren hautsi-mautsiak egin artean albiste batzuk oharkabean pasatzen dira gure

begien aurretik: euskararen erabileraren datu berriak. Begi baikorretik irakurriz, lurraldetxo bat salbatuko da agian, begi ezkorretik irakurriz, peko errekaraz ez ote goazen... aitzinatu dena ukatu gabe baina bukatu gabe kinka latza oraindik euskararena. Beste gatazka batek okupatuko du gure pentsamenduaren denbora, baina badugu hemen mikro-gatazka bat, hil ala bizikoa: subiranotasun politikoak jarriko al ditu hizkuntzaren subiranotasunerako oinarriak? Herri bezala bidea urratu behar badugu subirautza prozesuak behar-ko ditu subiraultza batzuk. ■

